

¿Fábulas inéditas de Juan Antonio Moguel? (1745 - 1804)

1. LAS FABULAS DE JUAN ANTONIO MOGUEL

Aunque Juan Antonio Moguel ocupe un lugar importante dentro de la Literatura vasca, no hay duda de que esta posición la debe a su prosa, y especialmente, a su novela *Peru Abarca*. Sin embargo, su producción en verso es menos estimada por evidentes razones de calidad, y también, porque su edición ha dejado mucho que desear. En efecto, Moguel no publicó sus fábulas en vida, y sus composiciones en verso han sufrido una edición poco cuidada y fragmentaria. Como es conocido, su sobrina Vicenta Moguel fue la primera en dar a la imprenta las fábulas de su tío, incluyéndolas en su libro *Ipui onac*, donde refiriéndose a estas composiciones dice: «Esan nuan len bersoipuzco oiec ez dirala nere burucoac. Pillo andi bat dauca eguinda nire osaba jaunac, ta pillotic artuac dira emen icusico diran guchi bachuec». ¹ En total, Vicenta Moguel publicó ocho fábulas de su tío.

El segundo recopilador de las fábulas de Moguel fue el franciscano P. Mateo Zabala, que en su obra *Fábulas en dialecto vizcaíno*, publicada con mucho retraso en RIEV, ² recoge nueve fábulas de Moguel: cinco habían sido publicadas ya por Vicenta y cuatro eran nuevas. Así pues, hasta hoy conocemos doce fábulas de Moguel. Sin embargo, doce no parece un número suficiente para que Vicenta Moguel indicara, que su tío «tiene compuestas un montón» («pillo andi bat»). Así pues, debemos pensar que las que hoy conocemos no son todas las que compuso Moguel.

Existe otra fuente más. En *Peru Abarca*, Moguel incluyó una fábula: *Basoco sagua eta eheco sagua*.

Pero, si las fuentes publicadas no nos permiten averiguar el total de las composiciones fabulísticas de Moguel, existe una fuente manuscrita poco utilizada, ³ que puede ayudarnos a identificar nuevos textos inéditos de Juan

1 Vicenta MOGUEL, *Ipui Onac*. San Sebastián, 1804, pp. 92-93.

Vicenta MOGUEL publicó los núms. 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, de la recopilación de Uriarte.

2 Mateo ZABALA, *Fábulas en dialecto Vizcaíno*. RIEV, I, 90, 529; III, 27. Publicó los núms. 1, 2, 4, 5, 8, 13, 15, 16, 19 y 27.

3 En los últimos años se han servido de él, el Padre Antonio ZAVALA para transcribir y publicar algunos poemas referentes a las guerras carlistas y a las de Africa; el Padre

Antonio Moguel. Me estoy refiriendo al tantas veces citado manuscrito del Padre José Antonio Uriarte: *Poesía Bascongada. Dialecto Vizcaíno*. (PBDV). El objeto de este artículo es probar que algunas de las fábulas recogidas por Uriarte pueden ser atribuidas a Juan Antonio Moguel.

2. POESIA BASCONGADA. DIALECTO VIZCAINO

Es un manuscrito de 600 páginas donde se recogen poemas de la primera mitad del XIX, y alguno del XVIII. Los poemas están transcritos en vizcaíno, pero también se recoge esporádicamente algún poema en otro dialecto, generalmente en guipuzcoano.

Uriarte pues, compuso una antología de la poesía vizcaína del XIX. Utiliza muchas fuentes. Unas publicadas (Peru Abarca, las fábulas de Iturriaga) y otras manuscritas e inéditas aún (fábulas de Etxezarreta, por ejemplo).

El libro está dividido en cuatro capítulos:

—Ipuñac. Fábulas hasta la página 93 del manuscrito.

—Versuac. Desde la página 115 a la 210.

—Gabongo cantac. Desde la 217 a la 273.

—Un cuarto capítulo sin título, pero donde se recogen las composiciones y versos de Eusebio Azcue desde la página 273 hasta el final.

A nosotros nos interesa el primer capítulo: Ipuñac, donde se han recogido fábulas de diversos autores: Iturriaga, Zabala, Etxezarreta.

Por las cartas que Uriarte escribió al Príncipe Bonaparte, sabemos que la antología empezó a redactarse en Markina, hacia el año 1856. Acompañó, al parecer, a Uriarte durante toda su vida, y éste pensó, alguna vez, publicar unas 50 fábulas (en realidad, recoge 56) para lo que escribió al Príncipe pidiendo ayuda económica. El proyecto no prosperó.⁴

Uriarte sigue en este capítulo reglas fijas a la hora de transcribir y ordenar los poemas. Uriarte fija seis secciones de fábulas ordenadas por autores:

—Una primera de la que no se cita autor, con 27 fábulas.

—Una segunda para Iturriaga con cuatro fábulas, tampoco cita autor.

—Una tercera para Tomás de Obieta con una fábula.

Lino AKESOLO, para editar en la revista "Karmel" el poema *Euscaradija* de Eusebio AZCUE; yo, por mi parte, trabajo sobre una edición crítica y anotada de todo el manuscrito, del que el presente artículo es un pequeño fruto.

⁴ URIARTE, *Carta a Bonaparte del 22 de agosto de 1864*. Archivo de la Diputación Foral de Bizkaia. Existe edición: RUIZ DE LARRINAGA, BRSVAP, X, 1954.

¿FÁBULAS INÉDITAS DE JUAN ANTONIO MOGUEL?

—La cuarta lleva la indicación «Bascuence arratiano»: Son las fábulas del Padre Mateo Zabala. Uriarte recoge 10 composiciones.

—La quinta es nuevamente para Iturriaga: Cuatro fábulas.

—La sexta recoge las fábulas del autor durangués Ramón Echezarreta, con la indicación «Don R. E. renac».

Las fábulas de Iturriaga se adaptan al vizcaino.

Antes de seguir, nos interesa subrayar que Uriarte delimita bien cada sección de este capítulo: No empieza una nueva sección hasta terminar de recoger las fábulas de un autor determinado. La repetición de Iturriaga parece deberse a una doble lectura del libro de este autor, en fechas espaciadas.

Este criterio de ordenación por autor va a servirnos para pensar que las 27 primeras fábulas pertenecen a un mismo autor, puesto que tanto la primera (señalada con el número 1 en la antología de Uriarte) como la 27 (última de la sección, puesto que la número 28 es una fábula de Iturriaga) son dos fábulas de Moguel, publicadas por Vicenta Moguel y por Mateo Zabala.

De las 27 fábulas que recoge Uriarte 12 fueron ya publicadas por Vicenta o por Mateo Zabala. En concreto los números: 1, Andra alarguna ta ollua; 2, Otsua eta aumia; 3, Basoco sagua eta eheco sagua; 4, Catamotza eta chacurra; 5, Lapurrac eta ollarra; 6, Baserritarra eta basaurdía; 7, Astua eta otsua; 8, Chacurra eta catua; 17, Otsua eta ardia; 22, Atsua eta ispillua; 23, Catua eizan, y 27, Arraintzallia eta arrainchuba. (Sigo la ortografía de Uriarte.)

Por tanto, si Uriarte ordena las fábulas que recoge por autores, y si como hemos demostrado, 12 fábulas de la primera sección son de Moguel, debemos pensar que las 15 restantes también lo son. Es decir, nos encontramos ante unas fábulas inéditas de Moguel.

Pero al llegar a este punto tenemos que hacer una puntualización. La fábula número 16 (Nescatilla ezne saltzallia), se publicó en el *Cancionero Vasco* de Manterola,⁵ atribuida al Padre Uriarte.

Sin embargo, esta fábula no difiere en estilo y métrica del resto de las fábulas recogidas por Uriarte, y es muy distinta a otro poema de Uriarte recogido en la misma antología.

En efecto las 27 fábulas recogidas en la sección tienen unos puntos en común, que hacen pensar en que las 27 son de Moguel.

1) El estilo de las fábulas de Moguel es un estilo neoclásico: La métrica utilizada se apoya en una imitación de la métrica castellana. En estos

5 MANTEROLA, *Cancionero Vasco*. II Sere, Tomo IV, pp. 78-81. San Sebastián.

27 poemas abundan las cuartetas y los pareados. Es decir, una métrica alejada del tradicional zortziko, utilizado por su parte por Uriarte en su composición sobre la guerra de Africa: «Euscaldun mutillen vijotzac Moruen contra / guerran eguiteco gurarijetan sendatu eta su- / tuteco». ⁶ De todas formas, Moguel utiliza el zortziko una sola vez en sus fábulas; *Catua eizan* sigue esta forma métrica tradicional.

2) Pero es que, Moguel tiene una muy peculiar costumbre de anotación de sus textos. Me refiero al hecho de que subraye las palabras de una cierta dificultad para el lector (ya sea porque son neologismos inventados por Moguel, o porque las considere extrañas al lector) y que su traducción aparezca al margen del verso, entre paréntesis.

Este sistema de notación de palabras consideradas difíciles y traducción al margen es exclusivo de Moguel.

Vicenta fue fiel a este sistema y en su libro *Ipui onac* aparece respetado. Es decir, la particularidad se conservó publicando al margen la traducción de las palabras subrayadas en el texto.

Uriarte conservó también en su transcripción esta costumbre de Moguel, y cuando comparamos poemas publicados por Vicenta con los recogidos por Uriarte, vemos que coinciden en la palabra subrayada y en la anotación al margen.

Esta particularidad en la escritura se mantiene en algunos inéditos, con lo cual debemos pensar con cierta seguridad que los que lleven esta especial señal, son poemas de Moguel.

En la antología de Uriarte aparecen con esa señal los números:

4: Catamotza eta Chacurra: *izuba* (espanto), *uzua* (indómito).

5: Lapurrac eta Ollarra: *Ce izacarija* (Que alaja!), ¡*Ab ce janari zozua!* (Que regalo!); *Eguitectuaren bizarra* (Bella hazaña!).

6: Baserritarra...: *burdiña zulatubac* (Escopetas); *Su auts* (Pólvora); *sutumpa* (Tiroteo).

10: Astua eta ugarasijuac: *cinguirá basatuan* (Pantano).

23: Catua eizan: *pecora* (Al cuidado); *eiza zauncarijac* (Perros de caza); *padarra* (Solitario).

24: Basoco...: *catu-epel otatua* (Gatos monteses); *Auci-aulquiija* (Tribunal); *Auci-epallia* (Juez), *Entzuteguira* (Audiencia); *contacinua* (Relación); *Salaciñua* (sin traducción al margen, N. A.); *catiguak* (Preso); *Aditzanian* (sin traducir al margen, N. A.); *Aulquitsua* (Entronado).

⁶ URIARTE, *PBDV*, p. 155, Archivo de Aránzazu.

¿FÁBULAS INÉDITAS DE JUAN ANTONIO MOGUEL?

25: Otsua eta Azerija eizan: *berun bolachua* (Bala).

26: Cauta eta Chorijac: *bituco* (Haré el duo); *Bardiñian erabilteco soñuac* (Para llevar el compás).

Así podemos probar que cuatro fábulas más son de Moguel. En total identificamos como suyas 16, de las 27 recogidas por Uriarte: 12 por aparecer en las recopilaciones de Vicenta Moguel o de Mateo Zabala, cuatro más por esta particularidad de la escritura de Moguel, y cuatro repiten las dos razones.

Respecto a las once que nos quedan, debemos basarnos en el criterio de Uriarte: Una sección para cada autor.

Y por fin, retomemos nuevamente, la fábula número 16, la que Manterola atribuye a Uriarte. Pensar que Manterola se equivocó en la atribución no me parece inverosímil. Mi hipótesis sería que alguien proporcionó la fábula a Manterola tomándola de esta antología. Las pequeñas diferencias entre ambas versiones parecen confirmarlo. La antología viene firmada por Uriarte, de un Uriarte recopilador, pero no autor. Para cuando Manterola inicia la publicación del *Cancionero Vasco* (1877-1880), Uriarte ya había muerto (1869). Por tanto, y evidentemente, alguien que no fuera el mismo recopilador, debió enviar la fábula a Manterola. Como el único nombre que aparece es el de Uriarte (puesto que como hemos indicado, la fábula aparece sin otra identificación), el anónimo corresponsal de Manterola envió el poema bajo el nombre del franciscano.

Con los datos que vamos indicando a través de esta pequeña introducción, pienso que también este poema debe ser atribuido a Moguel y no a Uriarte, cuyo estilo retórico está lejano al estilo directo del escritor neoclásico.

Vamos a transcribir pues las 27 fábulas de Moguel, tal como las transcribió siguiendo a Uriarte, realizando, así, la edición más completa hecha hasta el momento de las fábulas de Moguel, y publicando 14 fábulas inéditas de este autor.

Jon KORTAZAR
Mundaka 81-02-15

IPUIÑAC

1.

Andra alarguna ta ollua.

Andra alargunac echian
Eucan zorijonian
Ollo arrautzarija;
;Zan bai icusgarrija,
Egunoro imintia,
Utsic baga arrautzia.
Diño pocez bere artian
Emoten deusadanian
Baten bacarric artua,
Arrautza egunecua
Badau beti imiñiten,
¿Cer, baldin nic eruaten
Badeutsat artua bi bider?
Arrautza bat ez da ecer.
Emon ezquero janaldi bi
Laster eguingo bere nau ni
Arrautza andi biren jaube.
¿Celan asmau ez ete dabe
Onelaco gauzaric?
Alan ero eroric
Guicendu zan ollua;
Ta arrautza batecua
Alpertu zan guztija.
BETI IZAN DA EGUIJA:
GUEIJEGUI BILLATZIA,
ECER BAGA GUELDITZEA.

2.

Otsua ta aumia.

Auntz bat joian bein basora
Aumia echian ichiric
Cortan ondo gorderic,
Urten ez eijan campora.
Contu, dirautsa, ez urten
Etorri nadin artian;
Eta iñor bada artian
OLES, OLES eguiten
Ez ari idigui beinguan.

Zagoz iratzarriric
Ta ondo beguiraturic
Olesca nor ete daguan.
Celatan dago otsua
Esan eutsana entzuten;
Baña gosiac estututen
Eban sendo gaiztua.
Aumiaren araguija
Da, diño guztiz samurra;
Baña biar da guzurra
Neuretuteco guiberrija.
Badua issillic atera
Auntz amaren soñubagaz
Asmo donga au artubagaz
Eruateco autzera.
Aumiac dacar gogora
Cer esan eutsan bere amac
Amodijo andija eutsanac
Juan zanian basora.
Alan ate incirricatutic
Zucentzen ditu beguijac:
Eracusten deutsa arguijac
Eguan lecu ezcututic
An eguala otsua
Ez bere ama maitia.
;O malmuts goseberia!
Ez naucac ni or artua!...
Alanche ezcututic
Cirautsan otsuari.
¿Cer ipuiñac gaztiari?
Entzun eguizu bertatic:
BIAR DIRA GOGUAN ARTU
ZAARREN ERACUTSI ONAC,
ONDO PENSUTA EMONAC;
TA EZ IÑOZ EURACAZ AZTU.

3.

Baso, eta eche saguac.

Sagu bi celai baten
Egozan contubac esaten:
Bata zan basocua

¿FÁBULAS INÉDITAS DE JUAN ANTONIO MOGUEL?

Bestia echecua.
 Esaten deutsa ac oni:
 ¿Nai dozu zuc etorri
 Nire lagun izatera?
 Eta lecu eder batera?
 Dirautsa sagu echetijac
 Erguel eta burutijac:
 Baña emen mendijetan
 Leza illun barruetan
 ¿Cer ete dogu guc jango
 Ez deutzazu ez emongo
 Gozua dan gauzaric,
 Ez coipe, ez eztiric.
 Barriro basocuac
 An daucaz palagubac
 Echecuari esateco.
 ¿Nor ni baño obeto
 Vici ete da lurrian?
 Ez dot nic neure vicijan
 Izan iñoz bildurric,
 Icara, ez izuric.
 Nago neure basuan
 Baque ta atseguin osuan:
 Ez daucat arerijoric
 Ez dot nic iñoz galdu loric.
 Guazan, diño echecucac
 Janari basocuac
 Cer dirian icustera
 Ta aguiñac ezartera.
 Maija eben imiñi:
 ¿Cer ez zan an icusi?
 Sagarrac eta urrac
 Mispilla ta inchaurreac
 Ocaran madari
 Ta sabel gosiari
 Emon lequijon guztija.
 ¡Bestelaco bascarija!
 Dirautsa echecucac.
 Janari basocuac
 Argal eta otzac
 Liquits eta motsac
 dacusdaz imiñiric.
 ¿Ez daucazu besteric?
 ¡O neure anaija!
 Zuri echeco maija
 Jaot gaur emotia,
 Ta esquertsu izatia.
 Erdu nire echera
 Poz pocic icustera
 Andiqui janariac

Bero ta ugarijac.
 Coipia ta eztija
 Gaztaia ta urdaija
 Lucainca, ceciña
 Guztija fin fiña.
 Mosuac coipeturic
 Bizarrac eztituric
 Sabela berua.
 ¡Au bai jatecua!
 ¡Au bai bazcarija!
 Arto eta garija
 Daucadaz gambaretan:
 Nabil oramaijetan
 Icusten cer daguan:
 Eta nai badot juan
 Aseta lotara
 Oe bigunetara...
 ¿Noc niri eragotzi?
 Onelan vici naiz ni.
 Oneec eche sagubac
 Laban ta barritsubac
 Eutsazan esaten.
 Goi ta bé erausten.
 Onic onenian
 Jaten egozarian
 Jatorque catuba
 Baltz ta bizartzuba.
 Echecucac igues eguin,
 Basocuac larriz ecin
 Aurquitu zurculuric:
 Ebillen larrituric
 Chillijoz guizajua
 Bildurrez igarua.
 Guichic eguin eban
 Atrapau ez ebanian
 Catu bizartsubac
 Eta erpetsubac.
 Dirautsa basotijac
 Coldar ta bildurtijac:
 Lagun zoratuba,
 Au doc ire lecuba?
 Ago, nai badoc emen
 Bizarrac coipetuten.
 ¿Nora noc ecarri?
 ¡Ay baneusc igarri!
 Au deutsa esaten
 Ta agur eguiten.
 Berba eguiten dau lagunac
 Echeco sagu jaunac,
 Ta dirautsa aserrez:

JON KORTAZAR

¿Cergaitic igues ez
 Dozu zuc beinguan?
 ¿Cergaitic lapicuan
 Zara guelditu zu?
 ¿Celan ez daquizu
 Iguesa artuten?
 ¿Buruba zainduten?
 Basotar saguac
 Dirautsa: Gozuac
 Zure janarijac
 Coipe ta eztijac!
 ¡O adisquidia!
 ¡Lagun saltzallia!
 ¿Au da zure jana?
 ¡Ay mendi laztana!
 Cein zarian obia!
 ¡O baso neuria!
 Ez dago an caturic
 Ez guiltzen soñuric
 Zagoz zu coipetan,
 Ta ni basuetan.
 VIJOTZA QUEZCATURIC
 TA ARRIZCUZ BETERIC,
 DAGUAN ATSEGUIÑA,
 GUZTIZ DA SAMIÑA.

4.

Catamotza eta Chacurra.

Caijola burdiñazcuan
 Catamotz bat eguan sarturic,
 Icusten chacurra ondo ascaturic
 Catee бага, jolas ta parlantzuban.
 Desbardintasuna icusi ebanian
 Sartu zan catamotza aserrian.
 Cerua besuacaz nai dau artu
 Eta eucazan burdiñac urratu.
 Dirautsa diadarrez
 Biraos, arnaos, erneguz, ta aserrez:
 ¿Celan ni ain itzaltsu ta araña izanic,
 Nago emen ain estu ta catigu?
 Chacur zatarra, cer zara zu?
 Ez daucazu nire atzapar, ez zanic:
 Daucazu vicitza gozagarrija,
 Ara eta ona ibiltarija.
 Eta ni atsecabez
 Burdiña artian nauque bildurrez.
 Ondo da, diño chacurrac, ez icaratu,
 Egotia zu orrelan eta ni ascatu:
 Zara erpecari ta odol zalia;

Ni guizon ta eche gordetzallia:
 Ez baziña bere zu alacua
 Ecin izan nindeque zulaco gaiztua.
 Bazter guztijetan sartzen dozu *izuba*
 [(espanto)
 Zarialaco malmutz, eralla ta *uzua* (in-
 [dómito)
 Ez dauca barriz iñoc nire bildurric
 Agaitic nacutsu ni ascaturic.
Cetaraco dira indar ta putzac lurrian
Izango badira guero gueure caltian?
 ¿Ez dozu nai cateric?
 Ez bada iñoz eguin calteric.

5.

Lapurrac, eta Ollarra.

Eche baten lapurrac cirian sartu:
 Nai cituezan bazterrac aztertu
 Goitic eta beera
 Baña ez eben ecer atera.
 Ollar zár bat, bai. *Ce izacarija!* (¡Qué
 [alaja!)
 Baña lapurrentzat ona da guztija.
 Artu daigu, ciñuen, lumatz ederra
 Gangor gorri, allatsu, buru arrua,
 Aragui lodiz, mamintsu, mardua
 Guretzat izango da gaur eperra.
 ¡Celaco aparija!
 Asetaco gure gose andija.
 Beeroien ollar guisajua iltera
 Lapico baten egosten imintera.
 Emon eutsan ollarrac negarrari
 Bijotza biguntzeco lapurrari.
 ¿Cetaco nozube ni, neure guizonac,
 Ez badaucadaz aragui samur, ez onac?
 Baña guztija alperric,
 Lapurrac ez dauquelaco erruquiric.
 Ollarrac equin ta equin ostera:
 ¿Cetaco naruazube ni iltera?
 Artu baninduzue ollasco nintzarian,
 Samurra izango nintzan ezpanian.
 Illi dedilla ollanda bigun ta gozua.
 Baña, ¿ollar zaarra? ¡Ah ce janari zo-
 [zua! (¡Qué regalo!) (Frase irónica)
 Icusten nozube zaaturic
 Gogor, gauza ez, eta zalduric.
 Ez naz vici ni iñoren caltian:
 Guizonac eznaatuten ditut gabian.
 Vici nazanian banaz cerbaiteco;

¿FÁBULAS INÉDITAS DE JUAN ANTONIO MOGUEL?

Baña ilten banozube, ez ecetaco.
Nire soñua da ondo entzuna;
Iratzartuaz emoten dot centzuna.

Eguitectuaren bizarra! (¡Bella haza-
[ña!)

Dirautse lapurrac. ¡Ah ollar gangarra!
Euc emon doc ilteco erabaguija,
Ez bagueunca bere gose andija.
¿Dituala, diñoc, guizonac iratzartuten,
Ta jagui ditezan gabaz soñututen?
Ori gueijago dana, lapurren aurrian?
Galduba az, bai, gure batzarrian.
Orretan jagoc, erua, gure caltia;
Eta iretzat bere bai orain iltia.
GACHIGUIÑAC EZ DAU GURA ARGUIRIC,
ETA AIN GUICHI IZATIA EZAGUNA:
OQUERRERACO NAI DAU ILLUNA,
TA EZ EUQUITIA ICUSLARIC.

6.

Baserritarra eta Basaurdia.

Baserrico bati basaurdiac
Eguiten eutsazan bere soluan
Calte asco gari ta artuan.
Ta igues eguiten eutsan aberiac.
¡Cer! Diño: ¿Ez ete aut nic artuco?
Eta noz edo noz escuratuco?
Etorten jacon gabaz sarri;
Alaco baten escubac eutsazan ezarri.

¡Bai zorijonian!
Iminten ebala bere mendian.
Ebaguiten deusta ezquer belarrija,
Ichiten dabela ezagungarrija.
Bialtzen dau bada alan basora,
Biurtu ez cedin ostera solora.
Osatu jaconian zaurija
Ez beucan bere lengo belarrija,
Igaro jaconagaz azturic,
Icusi eban soloan sarturic.
Eta arec iguesari emonic
Ez eucan atrapetaco moduric.
Beste gau baten dago zainduten
Ta dacus artuac lurreratuten:
Belarri bacoachac marra marra,
Celan zaldi batec garagarra
Apurtuten eban bere aguiñetan
Baitabere biurtu urunetan.
Baserritar guizajo necatubac,

Ezarri eutsazan barriro escubac;
Eta escumaco belarrija ebaguiric
Ichiten dau belar mozturic.
Urrumizaca dua au basora
Odola erijola, ez solora
Gueijago sartuteco asmuagaz.
¡Zoricharrecua ni! ¿Cec zaruaz,
Diño, caltiac eguitera bazterretan?
¿Ez aldaucazu arte-ale, lur arbijetan,
Cegaz gosia ase ugari?
¿Cetaraco baserritar guizajuari

Galdu icerdija,
Eta urte guztico bere janarija?
Osatu zan barriro belarri motza,
Gogora jatorca soloco artotza.
Banua ara, diño, naz ariña,
Chacurraz sarri burruca eguiña:
Ez bildurric
Jateco ez da biar belarriric.
Issilchuric dua solo maitera
Belarri zuloac daruaz echera:
Otsic ete dan ango atian:
Ez baldin bada bera bitartian
Artoz asetaco atsedenez
Ez izuz, icaraz, ta bildurrez.
Baserritarra orduco soluan
Bere otseñacaz celatan eguan.

Deutse berari elduten
Eta locarri senduacaz catigatuten.
Aberre satarrac ordu ain estuban
Esquintzari ederrac eguiten cituban.
Baña entzuteric ez jaco emoten
Ezpada aserrez esaten:

¡Calteguilla gaiztua:
¿Cergaitic izan az ain erua?
Icusi doc nire oneguitasuna:
Nic bere bai ire gaistotasuna.
Ez jagoc iretzat paracaiñoric,
Ez vicitziagaz ichiteco gogoric.
Jausi az orain gure escubetan
Burdíña izango doc ire saijetzetan.
Au esanaz ilten dabe beinguan,
Eta artu mutil batec lepuan,
Poz pocic echera eruatenco
Auzo guztijari barri on au emoteco.

Urrengo egunian
Imiñi eben zatarra zaldi ganian.
Artuten ditube *burdiña zulatubac* (es-
[copetas])
Su auts ederragaz prestaubac (pólvora)

JON KORTAZAR

Abijetan da *sutumpa* gogorra (tiroteo)
Esnatu euquiana ordi concorra.
¿Cer da, cer da? Diñue erri mutillac,
Batuten dira atso, agura, ta nescatillac.
Asten da barriro su-asse soñua
Alde ascotan da icusten lañua.

Errira dira jatsiten
Eta guztijac basaurdia icusten,
Baduaz andiqui baten echera
Aberre zatar au berari esquintzera.
Dacuse guztijac arrituric
Ez daucala basaurdiac belarriric.
Batuten da ara guizontaguija
Ateraten dabe zaraguija.

¡Au zan atseguña
Ardauagaz onretan calteguña!
Eguin zan beragaz bazcarija:
Batu zan jatera Jaunteguia.
Ez eban garunic aguri;
Barriz iñoc ecin eutsan igarri.

Cetan eguan
Garunic ez euquitia buruan.
Ez zaitece, Jaunac, arritu
Ez dacutsubenagaz miraritu:
Diño batec asco jaquinic,
Eta ipuin au azaldu guraric.

¿CELANGARUNIC EUQUI,
BALDIN BASAURDIA, BELARRI BI
GALDU EZQUERO, BADUA SOLORA?
CASTIGUBAC ONDUTEN EZ DABENA
DA GARUN BAGACO, TA ZORUENA.

7.

Astua eta Otsua.

Astuac bizcar azurrian
Eucan zori charrez zaurija.
Zan icusquizun guztiz negargarrija
Beliac bertan equin eutsanian.

Alperra zan osticadia
Eta arrantza gogorrac eguitia.
Astazaiña dagoca beguira barrez
Ta belatzar gosetija atseguñez.

¡Gauza errucarrija!
Astuarentzat ez egotia erruquiya.
Icusten eguan larpetic Otsua:
Celaco estutasunian eguan astua.
Astazaiñac beriagaz ez erruquiric,
Ez bela zatarra lepotic quenduteric.

¡Zorigaiztocua ni,
Bere escupian banagui imiñi!
Au ciñuan Otsuac, ta ez gaizqui:
Bada ondo aztertu badidi:
Guizon gaizquilla otsotubac
Dagoz ipuin onetan sartubac:
Beti oneec vici biar dabe icaraz
Ez pocez, olguraz ta algaraz.

8.

Chacurra ta catua.

Chacurra ta catua, ¿noc sinistu?
Egozan bein erretillu baten,
Alcarregaz baquian jaten,
Eta ez cirian bate bere aserratu.
Echeco jaunac beriala deitu
Eutsan icusteco auzoco bati.
Erdu ona, dirautsa, ¿cergaiti
Oneec alcar icusi ecinic,
Chacur ta catu izanic,
Ta jaten ontzi batetic?
¿Ez ete deutzazu zuc igarten,
Ipuin onetan cer dan adituten?
Bai, bai, neure guizona,
Esaten deutsa deituac:
¿Cer eguin ez leique ecandua?
Biaxtuna bera extitu;
Guizonic sutsuena otzitu;
Aserratuten erraza bigundu:
Ta oquerrena bere zucendu.
Au eguin leique eguijaz oituriac
Eta gauza oneetan jardutiac.

9.

Chacurra ta Astua.

Chacur bat, eta astua bein joiazan
Guizon bategaz bidian:
Au luac artu ebanian,
Solo batera sartu zan
Bedarra jatera Astua
Así zan atsedenez.
Barriz igarua gosez
Eguan chacur guizajua.
Astuari deutsa onec esaten:
Macurtu zaquidaz laguna,
Bada naz zure ezaguna,
Ta vici gara eche baten.

¿FÁBULAS INÉDITAS DE JUAN ANTONIO MOGUEL?

Zorruan daucazu oguija:
 Badozu lepua macurtuten
 Ichico deustazu quenduten
 Neure sabel zorrija.
 Alde eguiten dau Astuac:
 Chacurrac deutsa jarraituten
 Ta oñac ditu zutinduten
 Zacuan sartuteuco mosuac.
 Astuac deutsa esaten:
 Chacur, neure laguna
 Jaguico da gure Jauna
 Ta arec emongo deustu jaten.
 Onetan dator otsua
 Gose amorruez basotic,
 Iruntziteco gogotic
 Icusten daben Astua.
 Orduban bildur andijagaz
 Chacurrari esaten
 Deutsa ta erregututen:
 «Arren lagun zaquidaz.»
 Chacurrac dirautsa barrez:
 ¡O neure eche laguna!
 Jaguico da laster Jauna:
 Zagoz orche atseguñez.
 Otsuac il eban astua
 Chacurrac bete sabela,
 Ta eracutsi onela:
 «Ez izateco gaiztua».
 NAI DABENAC AURQUITU
 LAGUNA PREMIÑA ORDUBAN,
 BESTIAI EUREN ESTUBAN
 BIAR DEUTSE LAGUNDU.

10.

Astua eta ugarasijuac.

Asto zar, azur agui, argala
 Ezcabidun ta narru zabala
 Buruz beera joian bein issillic
 Egur atoz iduna macurturic (mano-
 [jos) (1)

Oiñ astunac, bidia lucia,
 Urte ascuac, bestetic gosia.
 Atsecabe guztijac jaco batuten
 Dacarrela vicitzia madaricatuten.

Orra nun beinguan
 Sartuten dan *cinguira basatuan* (pan-
 [tano)

Bere buruba alan ecusanian
 Sartu zan amorru gogorrian:
 Madaricatuba, diño, nire jaijoteguna,
 Atsecabia dalaco nire laguna.
 Uguerasijo soñularijac egozan urrian,
 Ta alaco birauac entzun citubezarian
 Esaten deutse miñ miñic:
 «Ez dozu bota biar biraoric.
 Izan zara zu nosbait gaztia:
 Eldu bajatsu uliac urdindutia

Igaro eguizu issillic.
 Cerubagaitic ez esan gaizquiric.
 Emen gagoz gu vicitza guztijan
 Sarturic cinguira zatarrarian
 Ez dago guretzat celairic,
 Ez lur, ez ichasua icusteric.
 Alambere joten dogu soñuba,
 Ta daruagu vicitza atseguintsuba.

Zuc bere eguizu onela:
 Naibaguia igaroco da beriala.
 NEQUIACAZ LAZTANDUTECO BAQUIA
 BEGUIRA CONTUZ CERURA:
 ITOCO DOZU ZUC ESTURA
 ETA ARINDU NAIBAGUIA.

11.

Belia eta Suguia.

Suguia lotan eguan
 Beliac eban icusi,
 Lasterchu eutsan esetsi
 Ta artu nere picuan.
 Eiza onegaz pozturic
 Gura eban il gosia;
 Biurtzen jaco suguia
 Ta ichiten dau eztenduric.
 Anditu zan pozoituric,
 Ta galdu eban vicija.
 ORRA ERACUTSI ARGUIJA,
 EZ EGUITECO CALTERIC.

12.

Ardi chacurra ta azerija.

Alcarregaz adisquidetasunian
 Ebiltzen olgetan ta jolasian

(1) Esta palabra aparece escrita sobre "atoz".

Ardichacur ta Azeri zuurra,
Celan catu erpecari ta chacurra,

Nosbait lecu baten
Alcarregaz lotan eta jaten.
Azerijac esaten deutsa lagunari.
Emon deuscat nic lecu aserriari.
¿Badaquizu cer dan zabaldu lurrian?
Azerijac vici dirala euren caltian.

¡O guzur andija!
Ni naz onguillia eta guztiz garbija
Onembestegaz azerija issillic
Bere lepoco uliac zurturic
Macurtuten da, ta dau esaten
Egun charrac deus icharoten.
Galdua naz, badatoz eizarijac,
Azeri guztijuen arerijo andijac.
—«Ez da ecer, ez beinguan izutu,
Dirautsa chacurrac, ez bildurtu.
Nun dituzu guizajua ceure beguijac?
Orra nun duazan mercatura gendetijac:
Nire auzoco andrac oin utsetan
Euren olluac artuta otarretan.
Quendu zaite zu ceure olluacaz
Ez dozu gaur barreric egingo nigaz.
Ostu ditubezalaco bart egaztijac.
¿Lapurtzat zuc emon azerijac?
Au esan dozu zuc aguirijan,
Neure ta lagunen calte andijan.
Ez neucan, diño chacurrac, gogo charric:
Ez neutsun nic opazuri calteric.
Etorrico jatsula, alan esatian,
Edo azerijac ollolapurtzat emotian.
Zuc ostu dozula bart ollateguija
Nic esan, ta au dala eguija?
Bazara bildotschu bat lacua
Ostu бага daucazuna jatecua.
¡Bildotsa! Ez deuscat, ez quendu nic
Artaldetic eruana: ¿cer asmauric
Ez dauca mundubac gueijago?
Eguin nozu lapurrac baño lapurrago.
Ola, i az bai, diño chacurrac,
Ez dituc, ez oneec guzurrac.
Buruba ichi doc orain loituric.
Eta ire pecatubac aguerturic.

Eta aguiñac zorrozuric,
Ichiten dau azerija puscaturic.
EGUIN EZ DABENA GACHIC,
¿CETARACO EZ EGON ISSILIC?
¿ETA CEGAITIC BURUBA EZ BEERATU?
EGUIN BALDIN BADA PECATU?

13.

Catu lapur birena.

Egun baten eguberdi aurrian
Eguala Praisca otseña escaratizian,
Urten eban bentana batera,
Auzoco nescatilla otseñagaz berba egui-
[tera.

Catu bi guelditu cirian ezcutuban
Atia ichi eban orduban.
Missichu erichon bateri,
Barriz Zapiron bestiari.
Icusi cirianian bacarric,
Eta ez euquela iñoren bildurric;
Catu gosiac asi cirian usain eguiten
Eta cer jango ete eben aztertuten.
Zapiron bestiari aurreraturic
Lapicuan musturrac sarturic
Ezpanac erreric fuuca da asten
Ta guztija aserraturic esaten;
Berba char, birao ta arauetan,
«Ez da goseric gaur gure sabeletan.
Icusi eban Ollanda erria
Sutatic baztertu, ta ateria.
«Ona, ona, Missichu lazтана,
Dirautsa, ¡au bai dala jana!
Burruntzira dira urreratuten
Erpe ta aguiñacaz deutse oratuten.

Eta sutaco garrac
Ezdeutsez erretan euren bizarrac.
Mormorca diardube guztiz pocic
Euren lapurretia issildu eciñic.
Eta ordu lauren barruban
Ollandia eguan ezcutuban.
Miiñac cituezan guero sicatu,
Baita bizarrac bere garbitu.

Sabelac ollandaz bete citubezanian
Icusi eben escartzeco laratzian
Echeco urdiarentzat eguan zucuba.

Au jatia litzateque pecatuba:
Diño Zapiron, conciencia andicua:
Eta Missichu ez quichiagocua,
Ondo diñozu, lagun maitia,
Urdiarentzat litzateque caltia.
Onetan dator otsein nescatillia:
An zan catuben igues eguitia.
Praisca gueldituten da erdi illic,
Aurquitu ez ebanian ollandaric.

Diño, ¡ay nire galduba!
Emen ibilli da Zapiron catuba.

¿FÁBULAS INÉDITAS DE JUAN ANTONIO MOGUEL?

Burruntzija artu eban escuban
Catu gaiztua topau eban ezcutuban.
Aserrez guerritic sarturic.
Ichiten dau catuba bertan illic.
IPUIN AU CETARACO DA ASMAUBA?
IZAN DEDIN MUNDUBAN EZAGUTUBA:
ASCO DIRALA ZAIJETAN CIOGUIJAC
URUNETAN BARRIZ EROEGUIJAC.
ETA BARRIZ PECATUBA,
IZANGO DALA AZQUENIC CASTIGAUBA.

14.

Chacur bijac.

Churi chacur salo ta azartubac
Ezarri etsazan bere aguin zorrotubac
Arigui mamñari bere echian
Iñoc ez ecusalaco ustian.
Pinto chacurtzar saluaguac
Entzun cituzanian urru soñuac
Bajuaco, ta dau aurquituten
Ariqui oña amurruz chiquituten,
Begui ezquel, aguiñac odolduac
Urruca ta mosuac astinduac.
¿Cer da ori, *Churi* zorigaiztocua,
Ez al zara zu chacur ehecua?
¡Ah, bai! Ta cein esquerbaguia,
Gure ugazabarentzat! Ceñec echia
Ichiten deuscun guri uste onez
Zaindu daigun gabaz eta egunez.
¡O ehegaltzallia!
Lapur andija zara, ez gordetzallia.
¿Ostuco ceuntzan ariqui zatija?
¿Ez al da au izatia lapur andija?
Oguija deuscu guri emoten,
Ta gugaz da sarri olguetan ibilten.

Ostu deutzazu ariquiija
Ceñegaz egingo eban bazcarija.
¡O esquer charreco ta sabel gaistocua!
Saldu dozu ceure ugazaba guizajua.
Ichi eguijozu araguijari,
Ez jan бага бирту ugazabari.

Ez gueijago zapaldu
Beragaz daguijan bazcaldú.
Ni naz zure adisquidia,
Urte ascotan lagun maitia.
Ondo diñozu, *Pinto* leijala,
Egingo neuque nic beriala
Zure esana, ez banequi

Bacarric diñozula campoti.
¿Ichiten badeutsat nic ariquiari
Ez al deutzazu zue emongo sabelari?
¿Cetaraco dira zure barriquetac,
Eguin badituzu ceuc lapurretac
Nic baño sarrijagotan?
Onegaz ni orain ondo nago.
ORDIJARI DIRAUTSA ORDIJAC,
EZ DOC BIAR ORRELA MOSCORTU,
EZ ARDAOZ GUZTIZ CONCERTU.
¡O CE EGUIJA ANDIJAC,
TA EDOCEÑENTZAT ARGUIJAC!
IRACASLAC IPUIN ONETAN
DAUQUEE ICASBIDIA:
DAGO ONDO IRACASTIA
EGUITADA ZUCENETAN.

15.

Eztilapurra.

Erlauntz baten ostutera
Lapur zatar bat badua.
¡O ce ezti gozua!
Aingueruben jana bera.
Sarri emendic aurrera
Zaitut, diño, icusico.
Neure aua imiñico
Dot abao ederrian.
Orra nun erle eztenian
Aurquitzen daben zaurija.
Biurtzen jaco estija
Beatzuna sabelian.
LABURRA ZAN ATSEGUIÑA
IRAUNCORRA BERE MIÑA.

16.

Nescatilla ezne saltzallia.

Nescatilla bat bein erri batera joian
Eznia eroiala bere morcuan:
Ondochu saldu ta aberastuteco
Eta egun onac guero igaroteco.
Salduco dot, diño, eznia;
Egingo dot irabaci ecin obia:
Eun bat arrautza ditut erosico;
Eta oneec laster ditut imiñico,
Olluen lumapian
Eun bat chitachu egin ditian.

JON KORTAZAR

Salduco ditut guero ollascuac
Ollanda biurtuco dira olluac.
Arrautzac oneetatic
Ta ascora igongo dot guichitatic.
¡Ay au poza! Urte bire epian
Diru asco izango dot aldian.
!Zorijonecua onela ni!
Erosico ditut bei eder bi.
Jaijoco jataz guero chalchuac;
Eguingo dira bigae ta idiscuac.
Bigaiacaz baijac,
Eta idiscuac acita idijac.
Eznia barriz izango da ugari.
Esango deutsal nescatilla otseiñari
Caruchu saldu daguijala,
Ta gona eder bat eguingo deutsalada.
Idijac ditut nic guicenduco,
Cecingueitzat guero salduco.
Eta azquenan
Diru gorri asco neure echian.
Asmo oneceaz zororic bajoian
Aberastute utsa ebalá goguan.
Onelan ichuturic
Balego leguez diru beteric.
Gogoraciño oneceaz zan aztu
Nun eban bere ezniá sartu.
Laban eguinda joten dau beia:
Agur morco, ta agur ezniá.
Negarrac darraico pozari,
Ecerezac aberats ustecuari:
Eta nescatilla cocua
Dago galduric ezne ta morcua.
¿Ipuin onec cer deuscu esaten?
¿Nescatilla eruac cer eracusten?
¿Gura dozu ondo jaquin?
Entzun bada belarri bijaquin.
DARABILLENA ONDASUN MACALA
ONTZI AUSCOR TA ARGALETAN,
ECER BAGA ESCU UTSETAN
GUELDITUCO DA BERIALA.

17.

Otsua eta ardija.

Baso otatu, eta bide ciarretan
Ebillera Otso salua
Ardijetan ebalá gogua
Jausi zan chacurren aguiñetan.
Usigui ta odolduric

Ichi eben arerijo senbagacuac
Emoten arnasa azquenenguac
Erdi illic, eta odolusturic.
Demporiagaz zan cerbait sendatu
Baña gosia ez jacon amaitu.
Eizaraco ez eucan indarric
Jateco bere ez araguiric:
Aguiñac daruaz bedarrera,
Eta dator ostruac jatera.

Alan eremutarra
Azur ta narru uts eguinic
Ta baruacaz argalduric
Ez da orain lengo lapurtzarra.
Baru luciagaz zan aspertu
Estututen eban gosiac
Eta bere sabeleco nequiác
Vijotza eutsan lengoratu.
Ardi bat eban icusi
Lar batetic bestera joiala
Dirautsa diadarrez, erdu beriala
Bada gaisoric nago ni.
Daucat sicaturic neure estarrija
Eta chimururic estiac
Andijac dira nire naibaguiac
Amorruzcua daucadan egarrija.

Ardijac deusta esaten:
¿Gura cenduque nic ura ecartia,
Eta ni zure aguiñetara eruatia?
Ez deustut nic ecer sinistuten.
Estarrija cenduque garbituco
Indarrac onelan artuco.

Onic onenian
Sartuco nindunquezu sabelian
Egarri ta gosez ilten bazara
Ardijac zorijoneco izango gara.
Au esanda badua
Eta gosez ilten da Otsua.
GAIZTUETATIC GORDE BURUBA,
EZ EURACAZ EUQUI ARTU EMONIC,
EZ JOCO, EZ BESTE ESCU LANIC:
AU DA IPUIN ONEN FRUTUBA.

18.

Eiztari birena.

Ebillen baso ta bideetan
Otso andi bat goseberia;
Bildururic eucan gentia
Erri inguru guzti aretan.

Bidasti asco cituzan galdu,
Guizon araguijaz ederto apaldu.

Eta berba guichitan
Izu gogorra zan errijetan.
Guizon bi cirian erri baten
Don Azcor erichon batari,
Don Bildur jauna bestiari
Ta bijac eban eizara urten.
Aguertuten jaque Otsua
Puusca ta aguiñac aguiriric
Baguitzar bijac gorrituric.
¡Ay au bai ordu estua!
Don Bildur Jaunac orduban
Arech batera igon eban,
Sancho Panzac eguin eban moduan
Alanche vicitzia gordetacuan.

Don Azcor sendo guriac
Aserre andijac arturic,
Ta osticoca asco eguiñic:

Indarrac ditut niriac
Diño, ta ez nic iguesic.
Otsua jaco aurreratuten
Don Azcor dago icharoten,
Guztija suac arturic.

Itutzat dauca Otsua
Jaurtiguiten deutsa tirua

Baña utsian
Ta arerijua dau bere ganian.
Otsuac dau beera botaten
Aguiñac an deutzaz ezarten:

Eta zatituric
Ichiten dau ill, ta odolusturic.

Don Bildur eguan urrian
Beguir arech ganian.

Otsua dau azpijan icusten
Sutumpa deutsa zucenduten:

Eta otsagaz batera
Ezarten dau illic lurrera.
Don Bildur jauna viciric
Don Azcor barriz beian illic.

¿Cetaraco dira putz gueijeguijac?

¿Cetaraco billatu arriscua?

¿Cetaraco gorde ez burua?

¿Cetaraco alaco azarquerijac?

Auzcaraco ascoc aupadia:

Guerraraco barriz icaria.

¡O eraquerija!

Alperric galdutia vicija!
BURUBA ARRISCUETATIC GORDETIA,
DA CENTZUN ANDICUA IZATIA.

19.

Azeri gaisotua.

Urte, gauza guztijac deseguiten ditu-
[zanac
Andi, ta chiquijetan gueldituten ez di-
[ranac

Ichi eben azeri azartua
Cituzan gauza guztijac baguetua.
Indarrac, aguiña ta azartasuna
Ta oneecaz lengo oñen arintasuna

Galdu cituzan azquenian.
Naibague oneec ezagutu cituzanian
Ta erijotzia ur urrian icusiric
Adisquide eta senidiac beragana batu-
[ric

Deutse esaten:

Ez deustazube niri orain pocic emoten.
Baña nai ditut esan nire pecatubac,
Eta artu neure burubari contubac.
Neure gaizqui eguiñac gogoraturic
Nago orain larri ta estuturic.
Jarten jataz neure oe albian
(Ez daucat beste gauzaric neure go-
[guan)

Batetic erbi puscatubac,
Bestetic eper sabeleratubac:
Orain gomutaten naz anzarraquin,
Guero ollategui galdubaquin;
Ez neutsan eceri be parcatuten
Guztijacaz neban ederto bazcalduten.
Ollascuen pitadac nago entzuten;
Ollarren soñubac nabe saminduten;

Eta usacumiac

Dira gaur nire larritzalliac.
Olluen carcarassa larri estubac
Nire buruban dagoz ondo sartubac.
Alboco senide ta adisquidiac
Cirian pistija aragui zaliac,
Azeri, oquigaztai, basacatuac
Ta oneen guisaco lapur ezagutubac.
Ezpan eta surrac miazcauric
Dirautse, buruba daucazu arinduric.
Lumachu bat bere icusten ezta
Ori zure beguitaciño uts bat da,
¡Ay emen baguengoz eurac icusten!
¡Euren soñuac urretic entzuten!
—Lagun charrac, zagoce issillic,
Naijago dot emen guelditu illic,
Barrero orrelaco asmoric artu,

Eta ostera eguin baño pecatu.
 Vici banaz ez gueijago...
 ¿Ez eta da guretzat obiago
 Euquitia bijotzian baquia?
 ¿Cetaraco dogu atsecabia?
 Laquijo imiñitaco ta chacurrac
 (Ez dira, ez, oneec guzurrac)
 Guizon armadun eizarijac
 Eta baserritar guztijac,
 Gure billa dabilnaz beti.
 ¿Celan iñor onelan baquez vici?
 Eci eguizubez ceuben grña gaiztuac:
 Ez ostu eche barruetaco olluac,
 Ichi erbichubai basuetan:
 Bestela erijotzaco larrijetan
 Izango da damuba
 Ta lapurreta gaiztuen castiguba.
 Alan gueissorric eguan azerijac eutsen
 [esaten.

Baña ¿cer ete eban ateraten?
 Senide batec eutsan erantzun:
 Ez da gure artian iñoz entzun
 Lapurrac gaitic gaizquiric:
 Alan gaur dirautzazu alperric.
 Galdu zan gure honria lurrian:
 Ez dogu aurquituco zoricharrían.

Eta ollateguijac
 Galdu ditu, esango da, Azerijac.
 ¿Uste dozu barriz onduce gariála gu?
 ¿Celacua izan zara zu?
 AZERIJA ILTEN BADA ZARREZ
 EGONGO DA BETETA GUIRATSEZ.
 Onetan dagozala entzuten
 Dabe ollosoñuba ta esaten:
 Guazan billatzera janarija
 Beti alan izango da azerija.
 Ichiten dabe gueissua bacarric;
 Ecin badau bere onec diadarric.
 Esaten deutse agurrian:
 Otz andija daucat sabelian...
 Ez arren guero nigaz aztu.
 Onembestegaz zan sermoia amaitu.
 ASCOC DAUQUEZ BERBA ONAC AUAN;
 BAÑA GOGO CHARRAC BARRUAN;
 ETA GRÑA CHAR ONDO SUSTRAITUA
 GAZTIAGAZ IZANGO OLA ZAARTUA.

20.

Azerija eta Eperra.

Celataca eguan
 Nosbait basuan
 Ezcutauric azerija
 Donga eta mausarija.
 An beraganatuteco
 Ta sabelian sartuteco
 Eper begui arguija.
 Baña au egaatija
 Ta ariña izanic,
 Eguac gora eguiñic
 Dua ach baten ganera,
 Andic esatera
 Nai eban guztija.
 ¡O neure eztarija!
 Ez noc ez artuco
 Ez deusc balijoco
 Eure asco jaquiñac.
 Eguizac aleguiñac
 Lurraz or josiric
 Beguijac ezarriric
 Aguiñac ezarteco
 Niri, ta esateco:
 ¡O, eta ce samurra
 Dan eper azurra!
 Ta onen araguija
 Gozua guztija.
 Dirautsa azerijac
 Dacadaz barrijac.
 Ez nator ni gaur ez
 Marroz ta guzurrez.
 Jatsi zaite beera
 Emenche jatera:
 Bildurra quenduric
 Ta neugaz baturic.
 Erdu bai lenbaitlen
 Jaquiteco emen
 Cer dodan icusi.
 Nator ni iguesi.
 Dabilnaz chacurrac
 Lurrian musturrac
 Vizcor ezarriric
 Zauncac zolituric:
 Usain eguiten
 Ta gu aterateco
 Lecu ezcututic
 Sasijen artetic.
 Datoz eiztarijac
 Ta chispa arguijac

¿FÁBULAS INÉDITAS DE JUAN ANTONIO MOGUEL?

Dacazde escuetan
 Oneec basuetan
 Darabille sua
 Éper guisajua:
 Orra emen lastana
 Icusí dodana.
 Erdu zu lurrera
 Bijoc eguitera
 Betico baquia.
 Leza bat daucat nic
 Berariz eguinic
 Anche ezcutetaco
 Burua gordetaco
 Chacur charretatic.
 Nic an berpertatic
 Zaitut zu sartuco
 Ta ondo ezcutauco.
 Usainca chacurrac
 Aratuaz lurrac
 Badira etorten,
 Gu barre eguiten
 Gara en egongo:
 Zauca baño ecingo
 Dabe leza aurrian.
 Eta azquenian
 Auac sicaturic
 Buru macurturic
 Dira biurtuco:
 Gu barriz poztuco
 Lezaco barruan:
 ¡Ce poza orduan!
 Eperrac igarriric
 Dirautsa barreeguinic:
 Azeri oquerra
 Berbata ederra
 Deustac gaur eguiten
 Ez deuat sinistuten.
 Ez gaituc eruac
 Eper campocuac.
 Ua bai emendic
 Guzurtija izanic
 Gaizto galgarrija.
 I gure eiztarija
 Ta eper zalia.
 Ase eguic gosia
 Ollateguijetan;
 Ez nire araguijetan.
 Ez juat lezaric
 Ecetaco biar nic.
 Ez nabe chacurrac
 Ez ire guzurrac

Quenduco emendic.
 ¿Cer gaur eguingo nic?
 Egon bague onian
 Emen ach ganian.
 Eguin arren niri
 Zauca eta ciri.
 Guizon eiztarijac
 Oin ibiltarijac
 Baditut icusten,
 Ez naz estututen.
 Eguac ariñac
 Berariz eguiñac
 Beguijac arguijac
 Ta iratzarrijac
 Daucadaz zorionez:
 Ez nabe artuco ez.
 Zaucaz datorrena
 Da ezagunena.
 I ascotacua
 Asmari gaiztua
 Abil issilchuric
 Ondo beeraturic:
 Orain otatzetan
 Guero iratzetan
 Nic aut i icusten
 Eperchuac zaintzen.
 Ua eure lezara
 Eruaizac ara
 Ollo echetuac
 Ego gogortuac.
 ¡O gure eperra!
 Ce Ipuin ederra
 Guizonai emoten
 Deutsezun ta esaten:
 GAIZTUEN JARDUNETAN
 TA BERBA LABANETAN
 EZ ZAI TE ARREN COIPETU:
 ETA EZ IÑOZ SINISTU.

21.

Azeri ja eta Baserri chacurra.

Cholin erichan chacurra
 Baserri baten eguan, azurra,
 Eta azala baño ez eucala
 Larrituric berba eguiten onela:
 ¡Ay nire zorigaistocua!
 Obeto vici da urde ehecua.
 Onentzat dira zai, gaztaña ta artua,
 Berba onac, ostro igar, ta lastua:

JON KORTAZAR

Ondo jan ta lo eguiteco
 Ta guicena daguala esateco.
 Barriz niri janarija
 Arto urdindu zocora jaurtiguja.
 Niretzat berba onic ez; bai osticadac,
 Ta ecerezbat gaitic maquillacadac.

Echeco urdia lodija
 Ni barriz argal, macal, azur aguirija,
 Azeri bat ebillen inguru areetan,
 Ta icusi eban chacurra illetan:
 Cholin, dirautsa, ez estutu:
 Bijoc biar dogu gaur baquetu.
 Zu zariala uste dot azur zalia,
 Ni barriz beti mamin jalia.
 Zuc eracutsi ta nic artu,
 Zuc atia idigui nic sartu.
 Onelan gara alcartuco,
 Mamindu, bizcortu ta mardotuco.
 Idigui eutsan chacurrac atia:
 Aztu jacon zaunca eguitia:
 Igon eban azerijac escaratzera
 Al eban guztija an jatera.
 Cecin zatija zan lelengo eizia:
 Camporaco artu eban guero bidia:
 Jarraitu eutsan Cholinac urrian
 Aserre zalaco ustian
 Zaucaz. ¡O gaiztaquerija!
 Jan eben bijac cecin guztija.
 Echecuac gossian jaguiric
 Ez eben aurquitu cecinic.
 Lapurren bat izan da, eben esaten,
 Agaitic Cholinec eban zaunca eguiten.
 Etorri zan ostera urrengo illuna;
 Baitabere Cholinen laguna.
 Sartu zan issillic echian
 Azerija, ta ordu berian,
 Artu eban urdai cielguia,
 Eta guero campora bidia.
 Jarraituten deusa Cholinec urchuan
 Urratuten da zaunca guzurrezcuan,
 Ta bijac alcarturic,
 Ichi eben urdaija sabelduric.
 Egun bata juañ, bestia etorri.
 Azerija echeratuten zan sarri,
 Ipuñian zan Cholin guria,
 Vizcortu ere bai estalguilla.
 Echecuac eben cerbait susmau,
 Nor zan lapurra bere laster asmau.
 Aurquitu citubezan alcar arturic
 Baitabere ichi bijac illic.

EZ DA EGUIJA ANDIJAGORIC,
 EZ DAGUALA ECHE LAPURRA BAÑO CAL-
 [TEGARRIJAGORIC.
 [CASI BEGUIJE EMENDIC ECHECO BURUAC
 EZ EUQUITEN OTSEIÑAC GOSETUAC:
 OGUIJA URRIJA
 DA ECHELAPURRETEN ESTALGARRIJA.

22.

Atsua eta Ispillua.

Atso becoqui cimur, begui gorrija
 Bizartsu, baltz, ernegarija,
 Argal, erren, larogueti urtecua
 Oi, ortz, aguin bagacua;
 Bestetic berriz becarrez betia
 Urdin, ta zuri eguiñic ulia;
 Surrautsagaz loituric
 Eta musquillagaz coipeturic:
 Betseiñetan cirudijanac catua;
 Eta bere bizarretan sagua
 Ecin zatar ichusijago izanic,
 Ez eban entzun nai zan lacua, zanic.

Diño, betor ispillua
 Icusteco emen neure burua.
 Icusten dau zucen zucen eguija,
 Eta diño: ¿Ispillu guzurtija
 Emon jat barre eguiteco,
 Eta ez nazana esateco?
 Dago bada gaizqui eguiñic,
 Ez deust eracusten aguiñic.

¡O guzurtija!
 ¿Nun doc nire matralla zurija?
 ¿Nun azal garbi, ta leuna?
 Gau eguiten doc ic eguna:
 Bela baltz bat eperra:
 Ichusiten doc ederra:
 Gaztiac dituc zaartuten,
 Gorputz lirañac macurtuten.
 Ausico aut nic osticopian;
 Ez az egongo ez nire echian.

Alan dau eguiten,
 Ta bere teman da gueldituten.
 Ipuñian deuscu esaten atsuac:
 BACOHAC VICI DAU BERE ZORUAC.
 EZ DA EZAGUTU NAI BURUA,
 EZ ENTZUN EGUIJA DIÑUANIC;
 EZTA SINISTU BERE BERBA ONIC:
 TA AUSI NAI DA ISPILLUA.

¿FÁBULAS INÉDITAS DE JUAN ANTONIO MOGUEL?

23.

Catua eizan.
(Zortzicuan)

1.

Anchiña erri baten
Vici zan catua
Gueldi egon biarrez
Gutziz gogaitua:
Iguesa artu nai dau
Issillic basora,
Igaroteco egunac
Bere gogo osora.

2.

¿Au cer da, echecuac?
¿Emen ni sarturic
Egon biar ete dot
Bildurrez beteric?
Banua escaratzera
Echeco gentiac
Nigan ditube beti
Euren aserriac.

3.

Illinti, ta bartzunac
Deustez jaurtiguiten:
Nire lepo azurrac
Dira minberatzen:
Au da emoten deusten
Eguneco oguija;
Ta igaro biar dot
Gambaran vicija.

4.

Narabille echecuac
Sarri illarijaz:
Lapurreta guztijac
Niri ezarrijaz.
Ecer artu ez daidan
Beti nabe zaintzen,
Oromaijan oquelac
Ditube sartuten.

5.

Juaten bada nosbait
Gure crijadia
Beste lecu batera;
Escaratz aldia
Chacur baten *pecora* (al cuidado)
Da beti guelditzen

Ichi nai ez deustala
Ara urreratzen.

6.

Catuac biar dabe
Vici gambaretan:
Billatu janarija
Eche saguetan:
Suac erquintzen ditu
Ta guztiz macaldu
Alan gure Missochu
Dana da argaldu.

7.

Au da entzuten dodan
Soñu beticua:
Guero estaltzen dabe
Contuz lapicua;
Atrapau ez daguidan
Gueli egosija,
Eta ase onelan
Neure gose andija.

8.

Egun baquezco бага
¿Nor vici onela?
Obatucago dot nic
Igues beriala,
Mendira eguitia
Cer jan billatzeco:
Sabel ain murrítua
Nosbait betetzeco.

9.

Esan eban leguezche
Eguin eban laster;
Eizan atrapetaco
Ollagor ta eper,
Baso-cuijac eta
Erbi gaztechuac
Arratoi, satorrac,
Eta chorichuac.

10.

Basuan artu eban
Lecu ezcútua
Anche dago celatan
Gure bizartsua:
Erpiac ezarteco
Pizti ta egaztijai:
Bidia zabaltzeco
Este cimurtuai.

JON KORTAZAR

11.
Lasterchu zan guicendu
Missochu guria:
Basuan ez da aurquitzen
Echeco gosia.
¡Au, diño, janarija!
Samur gozatsua:
Errijan vici dana
Dago zoratua.

12.
Catu eremuturrac
Ez dau nai bedarric,
Ez chermen, ez mispilla
Ez baso sagarric:
Aragui samurretan
Dago eztitua:
Barua an aurquitzen da
Betico aztua.

13.
Ebillela onelan
Pocez zoratunic,
Datoz ara eiztarijac
Chispaz orniduric:
Ta laguntzat dacarrez
Eiza zauncarijac; (Perros de caza)
Billatu ta ilteco
Eper ta erbijac.

14.
Usainca ebillela
Chacur bat lurrian,
Beinguan guelditu zan
Sasijen aurrian:
An eguan *padarra* (Solitario)
Issill ta gorderic:
Chacurrac ez eban nai
Alde eguin andic.

15.
Lasterchu eiztarijac
An dira batuten
Ollagor, eper edo
Erbijac urteten
Ete daben sasitic
Sua eguïteco,
Escuetan artuta
Brujazaratzeco.

16.
Ustesz uste bagaric
Dacuse catua
Sasipe saconduan
Guztija sartua:
Eucazala albueta
Azurrac ugari,
Zala calteguïllia
Eutseen igarri.

17.
Arin, eta itoca
Dabiltz bere billa:
Locarriz estu, eta
Dauque erdi illa:
Esaten deutseela:
¿Eiza galtzallia?
Emen galdu biar doc
Eure vicitzia.

18.
Guizonac, ¿cer eguin dot?
Dirautse catuac:
Aguertu eguidazuez
Neure peccatuac:
Baldin zuen laguna
Banaz ni onetan,
¿Cetaco imintia
Ni gaur cateetan?

19.
AGUINTARI BAT BADA
CALTEGUIN ANDIJA,
CELAN CIGORPERATU
LAPURCHU CHIQUIJA?
LAPUR ARTUTZALLIAC
BADIRA LAPURRAC,
IRUNTSICO DITUE
MAMIN TA AZURRAC.

24.
Basoco auci oquerra.
Bein batian

Basotar ascoren artian
Eguin zan mendi baten batzar andija:
Imiñi bere, erabaguija,
Ez eguïteco iñori gachic,
Lapurr ta ez beste calteric.
Onetan cirian aurrerenac

¿FÁBULAS INÉDITAS DE JUAN ANTONIO MOGUEL?

Gaizquilletarico andijenac,
 Catamots eta basaurdia,
 Eta otso gaizto lotsabaguia.
 Batu bere cirian azerija,
 Oguigaztai ta basacatu erpecarija
Cata mielga eta Missua
 Eta *catu-epel otatua*. (Gatos monteses)
 Alcarren irudicuac
 Lapur, eralla, ta asmo gaiztocuac.
 Deitu cituezan batzarrera
 An eguin zan leguia entzutera
 Basauntz bildurti, eta idija
 Ardi, mando eta zaldija .
 ¿Nor izango da gure Burua?
 ¿Nori emongo deuntsagu escua,
 Castiguetaco gaiztaquerijac?
 Alan itaunduten eban azerijac.
 Burutzat artu eben otsua:
 Salatzalletzat basacatua:

Eta celatarija
 Izango zala Azerija.
 Catamotsa guelditu zan issillic,
 Basaurdiac ez eban eguin chistic.
 Imiñi eben *Auci-aulquiija* (Tribunal)
 Eta jarri zan *Auci-epallia*. (Juez.)
 Inquiratu cituezan aldainenac
 Araguizale, an egozanac,
 Onretaco otso sotilla
 Ta izateco irabacijetan partilla.
 Mendi ganera jua zan celatarija
 Azeri, begui argui, mausarija.
 Idi batec bidetic diño... !O pecatua!
 Eruan eban bere burua

Gari bedarrera
 Beste bagaric jua zan aurrera.
 Ardi bat sartu zan soluan:
 Beste calteric an eguin ez eban,
 Ezpada jatia muga bedarra;
 Baña ez gari, ez garagarra.
 Zaldija urreratu zan sasira,
 Ta basauntza arin iturrira.

Eta gure azerija
 Eguan icusten guztija.
 Jua zan otsuaren aurrera
 Icusí ebana esatera.
 Esan eban aguintari jaunac:
 Gaizto orreec ete dira ezagunac?
 Bai, bai, diño Zelatarijac:
 Basauntz, ardi idi, ta zaldijac,
 Izan dira, leguia ausi dabeenac.

Esan eban otsuac
 Datozala gaur ona gaiztuac.
 Bialdu cituezan bere Gordetzalliac
 Ezarteco gazquilliai catiac:
 Eruan cituezan *Entzuteguirra*. (Audien-
 [cia])

Otso Jauna egoquen beguira
 Itzalez ta aserrez
 Arpegui astun, becoqui izurrez.
 Azerijac eguin eban *contacinua* (Rela-
 [ción])

Basacatuac *Salaciñua*

Bere beriala
 Gogor eta sendo onela:
 Idiac jan dau soluan garija,
 Ceñegaz eguingo zan oguija;
 Eta au ostiatua
 Izango zan guero sacramentua.
 Pecatu au ez da parcagarrija:
 Biar dau castigu latzgarrija:

Jan dabenac garija,
 Emon biar dau bere araguija.
 Ardija sartu zan soluan
 An cerbait jaten eguan:
 Azerijac ez dau esaten guzurric,
 Ez dago beralaco testiguric.
 Emon biar dau ardijac narrua,
 Dalaco lotsagalduco ta arrua,
 Bere lana ederragaz astinduric
 Ichi dau solo guztija mutilduric.
 Zaldija icusi da sasienduan
 Onec bere sartu nai eban soluan:
 Asco da borondate gaiztua
 Oni bere quenduteco lepu.
 Basauntza iturri batera
 Jua zan ura edatera.

¡O gaiztaquerija!
 ¿noc emon ete eutsan oni baija?
 ¿Nun da basoco penitenciaja?
 ¿Nun Aguintarijarentzat obedienciaja?
 ¿Eremutar, ta buruzalia?
 ¿Gorputzaren ereguitzallia?
 Ill biar dau onec urca batian
 Buruzaliac izan ezgaitian.
 Berba eguin nai eben *catiguac* (Preso)
 Bigundu negarrez ceruac:

Baña alperric
 Ez jaquelaco emoten entzuteric.
 Otsuac emon eban erabaguija:
 Partildu bedi oneen araguija

JON KORTAZAR

Celatari, ta biarguiñetan
Zucentasuna izan dedin bazterretan.
Catamotzac icusi ebanian
Jarriric gaiztaquerija *Aditzanian*,
Diño aserrez:
Ez dira gaur oneec illac izango ez.
Ganadu on, ta obengabiac;
Ez dau onelacoric aguinduten leguiac.

¡Icusijago!
Jaquingo da nor da gogorrigo.
Ator ona, diño, azeri guzurtija:
¿I az ain on, eta bildurtija?
¿Gari bedar apur bat jatia
Bidez, eta aurrera juatia
Ain doc pecatu andija?
¿Parcagach eta ichusija?
¿Cetaco ardija ic salatu,
Dalaco bein solo baten sartu,
Muga bedarra jatera?
Ez doc, ez salatuco ostera.
Atrapetan dau azerija
Ichiten dau guztiz erachija.
Bildurrez eguan basactua;
Oin icaraz Otso *Aulquitsua*, (Entrona-
[do.]

Bere gordetzallac erdi illic
Catamotza alan icusiric.
Ondo, ondo, diño basaurdiac,
Catamotzac daucaz bidiaç.

Guztijoc ilteco,
Eta oben bagacuac beguiratuteco.
Lagunduco deuscat nic pocic
Ez ichiteco zuetatic bat viciric.
Billatu dozube testigu gaiztua
Guzurrez estaldu salaciñua;

Eta utsquerija
Eguin dozube pecatu andija.
Izanic zuec guztijoc lapurrac,
Andijagoric ez daucanac lurrac.
Catamotza, il zuec Aulquiara,
Ori da zure contucua:
Niretzat beste pistiteguija:
Justicijac biar dau justicija.

¡Zan icustia
Catamotzagaz batera basaurdia,
Amorrioz guztijac puscaturten
Eta oben bagacuac zainduten!
¡O IPUIN BERARIZ EGUIÑA!
ETA IPUIN GUZTIJEN ERREGUIÑA!
¡CEMBAT ETE DITUZU AGUERTUTEN!

¡CEMBATI BEGUIJAC IDIGUITEN!
¡CEMBAT AZERI LURRIAN
OIN BI BAÑO EZDAUQUEZANEN ARTIAN!
¡CEMBAT BASACATU GOSE,
NAI DABEENAC EDERTO ASE,
AZURRETAN EZPADA MAMIÑETAN
BEGUIJAC IMIÑIRIC DIRUETAN?
ARRIAC DAGUIJE BALTZITUTEN,
ZURIJAC BARRIZ ARRETUTEN:

ETA UTSQUERIJA,
EGUITEN DA PECATU ANDIJA.
GUERO DIRA ARDIJAC MUTILDUTEN,
ETA ONEEC NEGUAN OTZAC ILTEN.
JAQUITUNAC DIRANAC,
ADITUCO DITUE ERDI ESANAC:
ETA BERBA ESTALDUAC
GUELDITUCO DIRA AGUERTUAC.

25.

Otsua eta Azerija eizan.

Otsotzar bat, eta Azerija
Billatu nairic euren janarija
Ebiltzan basuan eizian
Bata bestiaren pocian.
Otsuac artzen cituen chalchuac
Alan urraza, celan idiscuac;
Ta nosbait basaurdecumiac
Araguiz betetaco leza uniac.
Azerijac ez eucan indarric
Itoteco idisco, ez urruzaric.
Bildurtuten eban basaurdiac,
Eta ecin artu eutsezan umiac.
Eperren bati beutsan jarraituten
Laster eutsan onec egan eguiten.
Alan eguan argalic gizajua,
Eta guicen guicenic Otsua
Juan zan onen leza aurrera
Palaguz ta erreguz esatera:
Otso prestu, eta neure Jauna,
Aspaldijan zaitut ezaguna:
Badaquit zariana guztiz prestua,
Ez dollor, cequen, escu estua.
Ugari daucazu araguija,
Quendu eguidazu arren sabelerija.
Artu nai badozu otseñic,
Ni baño nor zuec obagoric
Aurquitu ciñaique lurrian?
Artu naguizu gaur ceure echian.

¿FÁBULAS INÉDITAS DE JUAN ANTONIO MOGUEL?

Nic eiza deutsut billatuco
 Zuc guero dozu atrapaucó.
 Bijuen onanian
 Cer jan izango da gure echian.
 —Azeri ascotaco ta mausarija:
 Ic jan nai doc emen araguija:
 Dirautsa otsuac Ene lepotic:
 Quen aquit beguijen aurretic.
 ¡Otsein ederra
 Izanic ibiltari, ta alperra!
 Bestetic az lapur citala:
 Ichico nenduquec beriala
 Aragui бага leza onetan
 Ic eguinic emen lapurretan.
 Ez juat, ez nic ire bearric
 Nire beso ta aguiñetan bajuat indarric.
 Alan dirautsa Otsuac, ta azerijac
 Leza atetic icusiric araguijac
 Amorrúz suturic:
 ¡Cer!, diño, ¿ez dago niretzat erruqui-
 ric

Eche aberatz onetan?
 Ez da gaur bene benetan.
 Egongo viciric
 Emon ez deustana janariric.
 ¡O otso zatar, cequen, ta salua!
 Guztijac deuec iri gorrotua.
 Au esaten eban azerijac bere artian
 Ta goguan erabillian bitartian
 Celan Otsua galdu,
 Ta bere aragui gordiacaz apaldu.
 Agur on bat eguinda juan zan,
 Otsu ichiric bere lezan.
 Icusí cituen urrenge egunian
 Ebiltzela eiztarijac urrian.
 Bajuaco Otsuari echera
 Asmo gaiztoz oni esatera:
 Igues eguizu emendic, adisquidia
 Galdu nai ezpadozu vicitzia.
 Emen dira artzain eta chacurra
 Eguija da bai, ta ez guzurra.
 Erdu neugaz toqui ezcutura:
 Zan eruateco arerijuan lecura.
 Sinistu cituen Otsuac
 Azeri: citalaren asmuac,
 Eta ero eroric
 Darua vicitzia galduric.
 Azerijari deutsa jarraituten
 Ta eiztarijac dabe icusten:
 Jaurtiquiric *berun bolachua* (Bala).

Ezarten dabe lurrera Otsua.
 Zauritu ta galduric eguala
 Ezagutu eban damuz beriala
 Saldu ebala azeri gaiztuac
 Atrapetaco aragui lezacuac.
 ¿Nun az, diño, piztija citala?
 Emen naijagoc cequen, zatarra?
 Izan baintz prestu ta emollia,
 Ez nintzuan izango ire galtzallia.
 Ill adi or oñacez beteric:
 Ez doc odola baña besteric
 Ire zan guicenetan
 Baquia emongo doc baso oneetan.
 ¿CER ICHARON LEIQUE AZQUENIAN
 DOLLORQUERIJA DABENAC VIJOTZIAM?
 CEQUEN, CICOTZ, CIZCU ESTUA,
 PRESTUBEZ, TA ESCU LABURRECUA
 DA BAI EGUIJA ANCHIÑACUA:
 IZANGO DALA AZQUENIC GALDUA.

26.

Catua eta Chorijac.

Ichiric catuac
 Echeco bazter ta zurculuac,
 Asmo gaiztuagaz bere aldetic
 Urten eban basora erritic.
 Eguan guerizpian
 Urrenge ibarrian
 Sastegui baten ezcuturaic
 Gaizto izan naiz macurturic.
 Eguanauzpez
 Ilda balego leguez
 Mausaz ta marroz entzuten
 Berreun bat chorichuc eguiten
 Citubezan cantuac.
 Beguiraturic catu zartuac
 ¡Ay, bacengöce, diño, urrian
 Neure inguruan lurrían!
 Baña celan nic ona eracarri?
 Miaoca asiten banaz ni;
 ¡Agur nire bazcarija!
 ¡Agur niretzat chorijs!
 Egotez gogait eguin ebanian
 Ta uste onac galdu cituzanian,
 Ateraten dau burua,
 Dirautse ederra da soñua:
 Eguiten ditu chaluac
 Balegoz leguez gozatuac

JON KORTAZAR

Bere belarrijac
 Entzunic soñu zorragarrijac.
 Icusiric chorichuac bizartsua
 Sarturic vijotzetan izua
 Nai dabe iguesa arin artu.
 —Chorichuac guisajuac
 Ez zaitzeze izan eruac,
 Ez naz, ez ni basacatua
 Zuen arerijo ezagutua:
 Ni naz erri barruan acija
 Baquetsu, ta otsana guztija:
 Erdube orain nire aurrera
 Soñularijen maisuari entzutera:
 Nire soñuac ez dauca bardiñic
 Zuen artian ez dago clarinic.
 Bazare bada ain soñu zaliac,
 Cetaraco ez izan gaur entzuliac?
 Zozo chistuagaz naz *bituco* (Haré el
 [duo])

Beste guztijac zare batuco
 Nire inguruan.
 Ez da iñoz izan mundian
 Ez basuetan
 Ez da Erregueen jaureguijetan
 Onelaco musicaric.
 Ez bada euqui icararic.
 Berba labanetan ziranac licatu
 Catu zarragana ciran urreratu
 Ta euren calte andijan
 Artu eben maisua erdijan.
 Ateratzen ditu atzaparrac catuac
Bardinian erabilteco soñuac (Para lle-
 [var el compás])

Atrapetan dau zozua
 Egoalaco lodi ta mardua.
 SINISGACHA TA ZURRA
 EZ BAZARA BATZUETAN,
 ZABALDUA DAGO GAIZTUETAN
 BERBA LABAN TA GUZURRA.

27.

Arraintzalia ta arrainchua.

Arraintzaliac bota eban saria:
 Bijaramonian dana arraiñez betia
 Egongo zalaco uste osuagaz:
 Aztu bere zan bere lo gozuagaz.
 Jagui zan oetic gossian,
 Ez eban naguiric aldian.

Badua jasotera
 Cembat artu eban icustera.
 Damuz beteric dau icusi
 Ez zala beste arraiñic jausi
 Ezpada chibija bacarra.
 An zan ernegu ta diadarra:
 Eta esatia:
 ¿Onetaraco bota dot saria?
 Chibija batgaitic gaba galdu,
 Eta pocez ez ecer nic apaldu?
 Luac daruauztazala beguijac
 Sabela jausiten gose andijac...
 ¡Semearen galdua!
 ¡Necatuen artian necatua!
 Onelan eguala erneguetan
 Esaten deutsa icaraz chibijac
 Guizon ona, quendu niri locarrijac.
 Ichasora orain bota naguizu
 Nosbait damutuco ez jatsu:
 Andija eguinic icusico nozu
 Saria barrero ezarrico dozu
 Ichas bazterrera;
 Etorrico naz zure sarera
 Andi, mardo guicenduric.
 Ez deusut esaten guzurric.
 Chibija bat... ¡Ce izatecua!
 ¡Apari bestelacua
 Egingo dozu gaur gabian!
 ¿Obe ez da datorren urtian
 Nire jaube izatia,
 Eta opari galant bat eguitia?
 Etorrico nachatsu lagunacaz:
 Zuc orduan nigaz ta bestiacaz
 Artuco dozu diru andija
 Eta esango: ¡O chibija!
 Leijal, eguijati ta berbacua,
 Sinistuten ez deusuna da erua.
 Sinistu neutsun ordu onian
 Imiñi nozu gaur egun obian.
 —Odol baltz, chiqui ta citala,
 Ill biar doc orain beriala
 ¿Iri sinistu nic?
 Ez doc icusico beste egunic.
 OBE DA ARRAIÑ CHIQUI BAT ESCUAN
 BALEIA BAÑO, AU ICHASUAN
 DABILLELA BATETIC BESTERA:
 ERDU ORAIN NEURE ECHERA.
 ETORRICO DAN OGUIJAC, ¿NOZ GOSIA
 QUENDU DAU? ETA NOZ ASIA

¿FÁBULAS INÉDITAS DE JUAN ANTONIO MOGUEL?

ICHI SABEL ARGAL MACALDUA?
BURDUNCIRA, CITAL GALDUA.
ALAN DIRAUTSA ARRAINTZALIA
BAITA BERE IPUIN ASMATZALLIAC.

ASCO TA ASCO IZANGUAC
ECER BAGA DITU ICHI:
ESCUCUA GORDE BETI:
CERBAIT DAUCA ORAINGUAC.

